



COMPRENSIÓN DE TEXTOS ESCRITOS

DATOS

Apellidos:

Nombre:

DNI / NIE:

Señale lo que corresponda:

Enseñanza **LIBRE** / **OFICIAL**

Grupo / Profesor:

INSTRUCCIONES PARA LA REALIZACIÓN DE LA ACTIVIDAD

- Duración: **60 minutos**.
- Apague su **dispositivo móvil**.
- Escriba sólo con **bolígrafo azul o negro**.
- No olvide realizar **todas** las tareas.
- Escriba sus respuestas en **las hojas de respuestas**.
- Al finalizar, entregue **todas las hojas** utilizadas.

PUNTUACIÓN TOTAL: /20



HOJA DE RESPUESTAS CTE

TAREA 1	ANTZINAKO MERKATARITZA	12 ITEM X 0,5 P. /6 PUNTU
----------------	-------------------------------	-------------------------	-----------------------

Hutsunea	0	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	11	12
Erantzuna	B												
	✓												



TAREA 2	BEGOÑA DEL TESO	8 ítem x 1p. /8 PUNTU
----------------	------------------------	---------------------	-----------------------

Erantzuna	0	1	2	3	4	5	6	7	8
Galdera	H								
	✓								

TAREA 3	GOIZALDE LANDABASO	6 ítem x 1 p. /6 PUNTU
----------------	---------------------------	----------------------	-----------------------

Galdera	0	1	2	3	4	5	6
Erantzuna	C						
	✓						



TEXTOS CTE

TAREA 1. ANTZINAKO MERKATARITZA Irakurri Nagore Irazustabarrenaren <i>Argia</i> aldizkariko artikulua eta osatu hutsuneak. Bi aukera sobera daude. 0 adibidea da.	12 item x 0,5 p./6 PUNTU
-----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------	------------------	---------------

ANTZINAKO MERKATARITZA ISIL ETA ERAGINKORRA

Afrikako kostaldea, K.a. VII. mendea. Nekao II.a egiptoar faraoiaren ...**0**....., feniziarrek Afrika zirkumnabigatu zuten. Itsaso Gorriaren iparraldetik abiatu, Indiar Ozeanotik kontinentearen ekialdeko kostalde guztia ibili, Ozeano Atlantikoan sartu, ...**1**..... haize eta korronteak gaudituz iparraldera egin eta Gibraltarko itsasartetik Mediterraneora itzuli ...**2**..... ziren. Edo horixe dio Herodotok (K.a 484-425) *Historiak* lan marduleko IV. liburukian.

Ondare material gutxi utzi zuten feniziarrek eta ...**3**..... historialari greziar eta erromatarren bidez dakigu haien berri. Nabigazioan eta merkataritzan nabarmendu ziren batez ere, eta Mediterraneo ekialdetik mendebalderantz zabaldu ziren, Afrikako kostaldean koloniak eratuz. Zenbait kasutan, Kartagon, ...**4**....., benetako hiriak sortu zituzten, beste batzuetan harresiz inguratutako portu-biltegiak, greziarrekin gatazkak izan zituzten merkataritza gune eta bideak kontrolatzeko, hala nola Alaliako guduan. Baina Mediterraneoko portuetako iskanbilaz eta truke zalapartatsuez ...**5**..... bestelako merkataritza modu lasaigoak erabili zituzten.

Herodotok IV. liburuan ...**6**....., salerosleen arteko inolako kontakturik gabeko trukeak egiten zituzten feniziarrek Libian, "Herkulesen Zutabeez haratago". Greziarrek Afrika ...**7**..... esaten zioten Libia eta Herkulesen Zutabeak ziotenean Gibraltarko itsasartea esan nahi zuten. Besteen hizkuntza jakin ...**8**....., eta harremanetan sakondu gabe, konfiantzan eta errespetuan oinarritutako trukeak egiten zituzten.

Feniziarrek kostaldera iristen zirenean beren salgaiak hondartzan utzi eta suak pizten zituzten, kearen ...**9**..... bertakoei jakinarazteko trukean has zitezkeela. Bertakoek orduan salgaiak aztertu eta ...**10**.....merezi zuten ordaina, nagusiki urretan, uzten zuten salgaien ondoan. Feniziarrek prezio egokia ...**11**....., urrea hartuko zuten eta ondoren bertakoek erositakoa jasoko zuten. "Baina ez bazaie nahikoa iruditzen, ontzietara itzultzen dira, eta bertakoek urre gehiago eransten dute, besteen nahiak ase arte, jakina ...**12**..... batzuek ez dutela urrea ukitzen prezio egokia lortu arte, eta besteek ez dutela salgairik ukitzen beren urrea hartzen dieten arte".

(Nagore Irazustabarrena Uranga, *Argia* aldizkaria, moldatua

2021eko abenduaren 19a).

- A. Aurkako
- B. Aginduz**
- C. Baita
- D. Beren ustez
- E. Bidez
- F. Dioenez
- G. Esaterako
- H. Gabe

- I. Haratago
- J. Haren aburuz
- K. Iritziz gero
- L. Nagusiki
- M. Omen
- N. Osoari
- O. Ote



TAREA 2 BEGOÑA DEL TESO.

Irakurri Berria egunkarian Begoña del Teso kazetari eta zinema kritikariari egindako elkarrizketa eta elkartu galderak erantzunekin. Bi galdera sobera daude. 0 adibidea da.

8 item x 1 p.

..... / 8 PUNTOS

BEGOÑA DEL TESO, KAZETARIA ETA KRITIKARIA: «EZIN DITUT IRAKURLEAK ASPERTU, EZTA NAGUSIAK ERE»

0.....

The Guardian, Liberation eta *The New Yorker*-en zale amorratua naiz.

1.....

Harritu egin ninduen. Neure burua inpostoretzat hartzen dut. Egun inpostorearen sindromea erabiltzen da azaltzeko emakumeok erakutsi behar dugula gizonak baino askoz gehiago garela. Ni, berriz, inpostorea naiz inpostorea izan nahi dudalako, aspaldiko esanahiarekin. Egunerok esnatzen naizenean pentsatzen dut gaur deskubritu egingo nautela.

2.....

Bai, gustatu zait kazetarien aldetik jaso dudana maitasuna. Eguneroko lanaren aldeko maitasuna sentitu dut hor. Badakit beste batzuek gorrotatuko nautela, baina ez dago arazorik.

3.....

Ez nuen espektatibarik. Gustua hartu nion ofizioari, eta polita izan da gertatu zaidana. Cannes, Venezia eta Berlingo zinema jaialdietan egoteko aukera izan dut. Berlinekin seko maiteminduta nago, eta orain alemana ari naiz ikasten. Hizkuntzak asko gustatu izan zaizkit beti.

4.....

Kaleko jendea elkarrizketatzen dut. Zinema munduan, Joaquim Jorda zinemagile zena izan da elkarrizketatu dudana ospetsuena. Zezenzalea naiz, eta Morante de la Puebla toreatzailearekin egin nuen elkarrizketa izan da gehien gozatu dudana. Egiten ditudan elkarrizketetan, nik ez dut aspertu nahi; ezin ditut irakurleak aspertu, ezta nire nagusiak ere. Elkarrizketarekin solasaldi batean nago, eta fabulazioaren alde nago. Fabulazioak testuinguru batean jartzen ditut. Nire elkarrizketak ipuinak bezalakoak dira.

5.....

Lanbide eta txoko guztietan dago jende interesgarria eta bitxia. Hori bai, behin txakur bat elkarrizketatu nuen, txakurra jabea baino interesgarriagoa zelako. Baina beti izango da norbait interesgarria zure orrialdea betetzeko. Kontua da solasaldian zuk atezuan egon behar duzula.

6.....

Ez daukat ezer Interneteko sare sozialen kontra. Baina egunerok idazten dut, irratian nago astean bitan, eta plaza nahikotan banago. Jendeak badaki nolakoa den nire pentsamendua. Ez dut harrokeriaz esan nahi hori.

7.....

Ez, ez dut gogoko iraganeko nostalgia. Gauza bat da sare sozialik ez izatea, eta beste bat Interneteko jakinduriari uko egitea. Interneten fundamentuz bilatzea esploratze lan ikaragarria da.

8.....

Elkarrizketak ere aurrez aurre egin behar dira. Gauzak ukitu egin behar dira. Presazko kontuak begiratzeko, telefonoa, bai, ados. Baina patxadaz irakurtzeko, gustura irakurtzeko: papera. Paperezko prentsa luxu bat bihurtuko da. Momentuko berriak Interneten daude, bestalde, eta hurrengo egunean analisiak eta bestelako irakurketak behar dira paperean. Horrek guztiak eskatzen du prentsako kazetariok edertasunez idatzi behar izatea.

(Urtzi Urkizu, *Berria*, moldatua.

2021eko azaroaren 6a)



GALDERAK:

- A. 1985ean hasi zinen kazetaritza lanean. Ofizioarekin zenituen espektatibak bete al dira urteotan?
- B. 5.800 elkarrizketa inguru egin dituzu urteotan. Nolako elkarrizketekin gozatzen duzu?
- C. Baina pozik zaude sariarekin?
- D. Beti lortu izan al duzu elkarrizketatuarekin konektatzea?
- E. Ez zabilta sare sozialetan.
- F. Fabulazio horietan guztietan, batzuk bitxiak eta xelebreak izango ziren, ezta?
- G. Kazetari gazteekin hitz egiten duzunean, garai bateko kontuez eta teknologiaz aritzen zara?
- H. *Kazetaritzaren kontsumitzaile moduan, zein hedabide dituzu gogoko?***
- I. Paperezko prentsak jarraituko duela iruditzen zaizu?
- J. Zer pentsatu zenuen kazetariak erabakitako sari bat jasoko zenuela esan zizutenean?
- K. Zer gomendatu beharko litzaioke kazetari izan nahian dabilen gazteari?



TAREA 3. GOIZALDE LANDABASO.

Irakurri Goizalde Landabasoren artikulua eta aukeratu erantzun zuzenak.

0 adibidea da.

6 item x 1 p.

..... / 6 PUNTU

ETA ZUK, ZER DUZU HOZKAILUAN?

Behin ezagun bati esan nion telebistarako saio bat nuela buruan: *Eta zuk, zer duzu hozkailuan?* Ezagunak esan zidan ez zuela arrakastarik izango, inori ez zaiolako inporta zer duzun hozkailuan. Luze azaldu nion hozkailu batek gauza asko esaten dituela: jabeaz, bizi den herriaz eta testuinguruaz ere; eta solasaldi on baterako zaborrontzi bat ere interesgarria izan zitekeela. Baina ez zuen ikusten.

Nik, berriz, ikusten ditudan telesail eta filmetan beti izaten dut gogoan hozkailua. Sukaldera hurbiltzen direnean, noiz zabalduko zain egoten naiz. Oparotasuna adierazteko beteta egoten dira, gainezka, zenbaitetan. Fikziozko aberatsek beteta dute beti hozkailua, gutxitan jaten badute ere. Hozkailu huts edo erdi hutsik dagoena, ostera, beti azaltzen da bakarrik eta bakartuta bizi den pertsona irudikatzeko; edota gizartearen bazterretan bizi dena islatzeko. Normalizazioak, lerro zuzenak, hozkailu betea eskatzen dute. Pelikulak etxean harrapatzen nauenean gelditu egiten dut irudia hozkailu barrua arakatzeko. Hauek beti dute osasuntsua den guztia, elikadura perfektua. Ortuariak, esne eta zuku artifizial asko, okela, arraina (gutxitan), poto asko... Bizitza zinematografikoa beti ahalegintzen da perfekziora ailegatzeko, perfekzio hori erabat irreal bada ere.

Lagun edo ezagunen etxeetara noanean ere hozkailuak ikusteko gogoia izaten dut. Euren hitzek baino gehiago esaten didate sekula lorik egiten ez duten makina horiek. Inoiz ez diet aitortu nire *mania* hau. Ez dakit zelan adierazi samurtasuna eta lasaitasuna ematen didatela bere barruek. Akorduan dut lagun baten hozkailua egun batetik bestera aldatu zela. Beterik egotetik hutsik egotera pasatu zen. Ni arduratuta nengoen, ingurukoek ondo zegoela esaten zuten, baina nik banekien hozkailu betearena izan zela bolada ona eta zerbait pasatzen ari zela. Hozkailuek guk nahi baino gehiago hitz egiten digute, gure neurria zein den esateraino.

(Goizalde Landabaso, *Berría*, moldatua,
2022ko urtarrilaren 25a)



0. Zer otu zitzaion Landabasori?

- A. Hozkailuak arakatzea ezagun batekin.
- B. Hozkailuak erosterako jakin beharreko aholkuak.

C. Telebista saio bat sortzeko gaia

1. Ezagunaren aburuz:

- A. Hozkailuen edukiak ez dakizkioke inori interesgarri gerta.
- B. Landabasoren ideia ez zaio inori axolako.
- C. Landabasoren proposamenak arrakasta izateko, hozkailuak ondo aztertuko beharko dituzte.

2. Zer dio Landabasok hozkailuei eta zakarrontziei buruz?

- A. Informazio esanguratsua ondoriozta daitekeela haiek behatuta.
- B. Kalaka ugari izan dituela zakarrontzien inguruan.
- C. Zakarrontziek ez ezik, hozkailuek ere zer esana eragiten dutela kaleko solasaldietan.

3. Zer dio Landabasok telesail eta filmetako hozkailuen edukiari buruz?

- A. Aberatsenak mukuru agertzeak ikuslearen txirotasunaz gogoeta eragiten duela.
- B. Gutxitan jan dezaketen bazterkeria salatzeke baliatzen direla.
- C. Mezu jakin batzuk helarazteko erabil daitezkeela.

4. Filmetako hozkailuak:

- A. Errealitatearen isla izan daitezen, ikusleek izan ohi dituzten produktuez betetzen dituzte.
- B. Ikusleak erakartzea helburu, produktu osasuntsuz beteta agertzen dira.
- C. Perfekzio itxura emateko atontzen dituzte.

5. Zer dio Landabasok ezagunen etxeetako hozkailuei buruz?

- A. Haiek arakatzeko nahia sentitu izan duela.
- B. Ia hitzez kontatutakoa adina kontatzen dutela jabeei buruz.
- C. Miatzeko irrika eragiten dutela bisitariengan.

6. Zein ideiak laburbiltzen du ondoen Landabasoren mezua?

- A. Hozkailuak arakatzekoak jendeaz zuen iritzia aldarazi diola.
- B. Kontuz erakutsi beharko genukeela gure hozkailuan zer dugun.
- C. Nahita edo nahi gabe, informazio askoren berri ematen dugula hozkailuen bidez.



COMPRENSIÓN DE TEXTOS ORALES

PRUEBA DE CERTIFICACIÓN

DATOS

Apellidos:

Nombre:

DNI / NIE:

Señale lo que corresponda:

Enseñanza LIBRE / OFICIAL

Grupo / Profesor:

INSTRUCCIONES PARA LA REALIZACIÓN DE LA ACTIVIDAD

- Duración: 45 minutos.
- Apague su **dispositivo móvil**.
- Escriba con **bolígrafo azul o negro**.
- Cada tarea se escuchará **dos veces**.
- Para cada una, el procedimiento será el siguiente:
 - **dos minutos** para leer el enunciado y la tarea
 - **primera escucha** del documento
 - **un minuto** para responder
 - **segunda escucha** del documento
 - **un minuto** para revisar las respuestas y anotarlas en la **hoja de respuestas** (reverso de esta página)
- Al finalizar, entregue **todas las hojas** utilizadas.

PUNTUACIÓN TOTAL: /20



HOJA DE RESPUESTAS CTO

TAREA 1	KAZETARIAK ESPETXEAN Entzun Euskadi Irratiko <i>Baipasa</i> irratsaioa eta adierazi esaldiak egia (E) edo gezurra (G) diren. 0 adibidea da. <p style="text-align: right;">10 item x 0,5 p.</p>	<p>..... /5 PUNTU.</p>
----------------	------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------	------------------------

0. *Kazetari gutxiago kartzelaratu dituzte, alabaina, erruz igo da hildakoen kopurua. GEZURRA*
1. Mundu osoko kazetarien % 20 dago espetxean, hala, marka hautsi da.
2. Ez dago alde handirik emakume eta gizon kazetari espetxeratuen artean.
3. Bielorrusiako preso gehien emakumeak dira.
4. Txinan espetxeratutako kazetari emakume guztiak mugimendu feministetan aritzeagatik daude preso.
5. Badira zortzi urtean abokatuekin edo familiarekin egoterik izan ez duten presoak, Marokon, kasu.
6. Zenbait herrialdetan, bost urtetik gora igaro daitezke presoak epaia jasotzerako.
7. Maiatzaren 23tik toki sekretu batean gatibu dagoen kazetaria bonba bat zeraman hegazkin batean zihoala atxilotu zuten.
8. Grabazio batzuei esker jakin da kazetari bielorrusiarra non dagoen.
9. 2016an milaka dokumentu filtratzeagatik gutxienez 175 urteko kartzela zigorra ezar diezaioke Julian Assange.
10. Pandemiaren gaineko informazio faltsua ematea leporatu zioten Zhang Zhan kazetariari.

Esaldia	0	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
Erantzuna	G										
	✓										



TAREA 2	HEGAZTIAK HIRIAN Entzun Euskadi Irratiko <i>Ekosfera</i> irratsaioko solasaldia eta adierazi baieztapenak nork esan dituen. 0 adibidea da. <p style="text-align: right;">7 item x 1 p.</p>	<p>..... /7 PUNTU.</p>
----------------	----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------	------------------------

	Gizonak (G)	Emakumeak (E)	Biek (B)
0. <i>Donostiak habitat mota ugari ditu.</i>		X	
1. Bartzelonan Donostian baino hegazti espezie gutxiago dago.			
2. Habiak egiten dituzten ia 100 espezie daude Donostian.			
3. Hain erraz ikusten ez diren hegaztiak ere badaude.			
4. Harrigarria da Donostian Bartzelonan baino espezie gehiago egotea, hura epelagoa izanik.			
5. Herritarrek batik bat txolarreak, usoak eta kaioak ikusten dituzte.			
6. Liburua Bartzelonako atlasean oinarrituta egin da.			
7. Proiektua ontzea lan gaitza eta luzea izan da.			

Esaldia	0	1	2	3	4	5	6	7
Erantzuna	E							
	✓							



TAREA 3	MADDI NAZABAL Entzun <i>Amaurauna</i> saioko Maddi Nazabalen zutabea eta aukeratu erantzun zuzena. 0 adibidea da.	8 item x 1 p. /8 PUNTU.
----------------	------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------	------------------------------

0. *Zeri deritzo bitxia Maddik?*
 - a. Ahaztearen prozesuari, ez baina oroitzearenari.
 - b. Ahaztearen zein oroitzearen prozesuei.**
 - c. Ezin oroitzeak eragindako barne prozesuei.
1. Zer dio Maddik oroitzeaz eta ahazteaz?
 - a. Ahaztea baino nekezagoa egiten zaigula zenbait oroitzapen gogoratzea.
 - b. Nola ez gogoratzeak hala ezin ahazteak ezinegona pizten digutela ezinbestean.
 - c. Oroitzeak zein ahazteak era askotako sentrazioak eragin diezazkiguketela.
2. Zerbait ahaztu nahi dugunean:
 - a. Tematzearen tematzeaz lor dezakegu oroitzapenak lausotzea.
 - b. Zenbaitetan, ahazteko nahiak berak eragiten du gomutak gogoan izatea.
 - c. Zizelkatuta ditugun datuak ezabatzeak ahalegina egin behar izaten da.
3. Amorrua, mina eta haserrea eragiten dizkigu:
 - a. Ahaztu dugun zerbait oroituko ez dugula jabetzeak.
 - b. Ahazteko eginahalak egin arren, gure baitako oroitzapen jakin batzuk gogoratzen jarraitzeak.
 - c. Egoera desatseginen aurrean kontrolik ez dugula jakiteak.
4. Ez da komenigarria:
 - a. Ahazteko grina beti asetzea.
 - b. Gogoratu nahi ez duguna oroitzea.
 - c. Gure nahi guztiak betetzen setatzea.
5. 2020. urteari dagokionez:
 - a. Arriskutsua iruditzen zaio etengabe urte horretako gertakarien gainean pentsatzeari.
 - b. Gehienez antzera, gorabehera ugari izan ditu urte horretan eta atzean utzi nahi luke.
 - c. Hutsegiteak errepikatuko ez badira, jazotakoa gogoratu egin behar da.
6. Maddiren esanetan:
 - a. Bizitako gertaera gogorak gogoratzea aski da indartsuago izateko.
 - b. Oroitzapen txarrak oroitzeak ez digu aurrera egiten uzten.
 - c. Oroitze hutsa ez da nahikoa jazotakoa gainditzeko.
7. Zer baieztatu du Maddik?
 - a. Ahantzura oztopo dela gero hobea eraikitzeke.
 - b. Eskertzekoa dela ahaztuko ez ditugun gertaerak bizi izatea.
 - c. Etorkizuna eraikitzeke gertaera batzuk ahaztea giltzarria dela.
8. Zer mezu eman digu Maddik guztia laburbiltzeko?
 - a. Ahaztu nahi duguna txarra izan ohi denez, ezinbestekoa da etorkizun hobea eraikitzea ahazteko beharrik izan ez dezagun.
 - b. Etorkizunak ez duela zertan iraganak baino hobea izan, beraz, ez genukeela pasatakoa ahaztu behar.
 - c. Tamalez, oraindik heldu ez den etorkizun hori ahazteko premia izango dugula susmatzen duela.

Galdera	0	1	2	3	4	5	6	7	8
Erantzuna	b								
	✓								



MEDIACIÓN ESCRITA

DATOS

Apellidos:

Nombre:

DNI / NIE:

Señale lo que corresponda:

Enseñanza **LIBRE** / **OFICIAL**

Grupo / Profesor:

INSTRUCCIONES PARA LA REALIZACIÓN DE LA ACTIVIDAD

- Duración: **30 minutos**.
- Apague su **dispositivo móvil**.
- Escriba con **bolígrafo azul o negro**.
- Recuerde: **si no cumple la tarea**, la calificación será 0.
- Escriba su texto en **la hoja que se le facilita**.
- Al finalizar, entregue **todas las hojas** utilizadas.

PUNTUACIÓN MEDIACIÓN ESCRITA: /10

PUNTUACIÓN MEDIACIÓN ORAL: /10

PUNTUACIÓN TOTAL MEDIACIÓN: /20

PRUEBA DE CERTIFICACIÓN



INTERNET BIDEZ EROSTEKO AHOLKUAK.

Berriki, familiako whatsapp taldean, izeba bati Internetez iruzur egin diotela jakin duzue. Gainerako senideak, bereziki nagusienak, kezkatuta daude. Berria egunkarian gaiari buruzko informazioa topatu duzu, eta interesgarria izango zaielakoan, taldean idaztea erabaki duzu. Adierazi artikuluko informazioa zure hitzetan, denek ulertzeko moduan.

120-150 hitz

..... /10 PUNTU

INTERNET BIDEZ EROSTEKO AHOLKUAK

Https guneak erabili. Erosketa egiten den webgunearen hasieran *https* ageri dela ziurtatu.

Jabea identifikatu. Begiratu nor den salmentaren atzean dagoen enpresa edo norbanakoa.

Gailuak eguneratu. Sakelakoarekin zein ordenagailuarekin erosita, gailu horiek erabiltzen duten sistema eguneratuta eduki.

Gailuak babestu. Erosketa egiteko erabiltzen duzun gailuan antibirusa instalaturik eduki.

Zalantzak baztertu. Susmo txikienaren aurrean, ez erosi atari horretan.

Maukak, neurrian. Saltzailearen eskaintza harrigarriki ona bada, kasu eman.

Ez ibili wifi irekirik. Erabili sare seguruak; wifi sare irekietan erostea arriskutsua izan daiteke.

Hobe txartelik gabe. Posible bada, ez eman txartelaren zenbakia. Ordainketa plataformekin edo txartel birtualekin erostea seguruagoa da.

Ez utzi arrastorik. Txartelari buruzko datuak gogorarazteko aukerari muzin egin, beti. Datu sobera eskatzen badituzte, ez eman.

Jasotakoa egiaztatu. Erositakoa jasotzean lehenbailehen begiratu ea ongi dagoen; hobe banatzaileari sinadura eman aurretik.

Itzul daiteke. Europako Batasunean, erosketa jaso ondoren atzera egin liteke hamalau eguneko tartean.

(Berria, 2021eko azaroak 20)



MEDIACIÓN ESCRITA

NOMBRE Y APELLIDOS:

Empty rectangular box for writing the name and surnames.



PRODUCCIÓN Y COPRODUCCIÓN DE TEXTOS ESCRITOS

PRUEBA DE CERTIFICACIÓN

DATOS

Apellidos:

Nombre:

DNI / NIE:

Señale lo que corresponda:

Enseñanza **LIBRE** / **OFICIAL**

Grupo / Profesor:

INSTRUCCIONES PARA LA REALIZACIÓN DE LA ACTIVIDAD

- Duración: **75 minutos**.
- Apague su **dispositivo móvil**.
- Escriba sólo con **bolígrafo azul o negro**.
- No olvide realizar **las dos tareas**.
- Recuerde: **si no cumple la tarea**, la calificación será 0.
- Escriba sus textos en **las hojas que se le facilitan**.
- Al finalizar, entregue **todas las hojas** utilizadas.

PUNTUACIÓN TOTAL: /20



TAREA 1	PRODUKZIOA: IRITZI ARTIKULUA Turismoa erakartze aldera, zure hirian kasino erraldoi bat eraikitzea erabaki du udalak. Azken urteetan saltoki ugari itxi direla eta, lanpostuak sortu nahi dituela argudiatu du. Erabakiak hautsak harrotu ditu hirian. Idatzi hiriko aldezkarian gairi buruzko <u>zure iritzia</u> . <u>Adierazi</u> erabakia egokia iruditzen zaizun eta <u>argudiatu</u> zure ikuspuntua. 175 hitz inguru. /10 PUNTU
TAREA 2	KOPRODUKZIOA: ESKUTITZA Zure 17 urteko semeak ez du ikasten jarraitu nahi. Ozta-ozta bukatu du Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza eta ez du ezer egiteko motibaziorik adierazten. Horrek etxean liskarrak eragin ditu eta ez dakizu nola jokatu. Atzerrian bizi den zure lagun min bati gutuna idaztea erabaki duzu. Adierazi <u>nola sentitzen zaren eta eskatu aholkua</u> . 175 hitz inguru. /10 PUNTU



**Junta de
Castilla y León**

Consejería de Educación

ESCUELAS OFICIALES DE IDIOMAS DE CASTILLA Y LEÓN

EUSKERA - NIVEL AVANZADO C1 - ORDINARIA 2022

PRODUCCIÓN Y COPRODUCCIÓN DE TEXTOS ESCRITOS

NOMBRE Y APELLIDOS:

Empty rectangular area for writing the name and surnames.



CLAVES DE RESPUESTA

COMPRENSIÓN DE TEXTOS ESCRITOS

TAREA 1

Hutsunea	0	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	11	12
Erantzuna	b	a	m	l	g	i	f	n	h	e	d	k	c
	✓												

TAREA 2

Erantzuna	0	1	2	3	4	5	6	7	8
Galdera	h	j	c	a	b	f	e	g	i
	✓								

TAREA 3

Galdera	0	1	2	3	4	5	6
Erantzuna	c	a	a	c	c	a	c
	✓						



CLAVES DE RESPUESTA

COMPRENSIÓN DE TEXTOS ORALES

TAREA 1: KAZETARIAK ESPETXEAN

Esaldia	0	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
Erantzuna	G	G	G	E	G	G	E	G	G	G	E
	✓										

TAREA 2: HEGAZTIAK HIRIAN

Esaldia	0	1	2	3	4	5	6	7
Erantzuna	E	E	B	B	G	G	E	G
	✓							

TAREA 3: MADDI NAZABAL

Galdera	0	1	2	3	4	5	6	7	8
Erantzuna	b	c	b	b	a	c	c	a	a
	✓								



**PAUTAS DE CORRECCIÓN
MEDIACIÓN ESCRITA**

Desarrollar los consejos para realizar compras de forma segura por internet.

Explicar la información de forma clara adaptada al ámbito de comunicación.

Transmitir información específica sobre seguridad virtual.

Respetar el registro establecido en la actividad.



PAUTAS DE CORRECCIÓN

PRODUCCIÓN Y COPRODUCCIÓN DE TEXTOS ESCRITOS

Tarea 1

Desarrollar argumentos para defender la tesis sobre el tema.

Hacer uso de un lenguaje apropiado al tema con léxico variado y estructuras acordes al nivel.

Organizar el texto respetando las características propias de los artículos de opinión.

Tarea 2

Expresar con claridad y matices preocupación y otras emociones provocadas por la situación planteada.

Solicitar consejos.

Estructurar de forma apropiada una carta informal.



PRUEBA DE CERTIFICACIÓN-BLOQUE B

MEDIACIÓN DE TEXTOS ORALES

Zure lagun baten semeak kazetaritza ikasi du. Azal iezaiozu zure lagunari ze nolako aukerak dituen Argia aldizkarian bekadun aritzeko.

BEKADUNAK EZ DIRA KAFEA ZERBITZATZEKO

Sinadura berriak agertzen dira lau hilean behin Argiaren webguneko albisteetan. “Hara, bekadun berriak izango dira hauek”, argia.eus-en ibiltzeko ohitura baduzu, behintzat, izango zenuen erreakzio hori noizbait. Kazetaritzaren edo ikus-entzunezkoen munduan murgiltzen ari denarentzat aukera polita izan daiteke euskal hedabide bat barrutik ezagutu eta bertan bere lehen lanak egiteko.

Maria Ortega Zubiate markina-xemeindarrarena da gaur egun topatuko duzun sinadura. Lehen Bilbo Hiria irratian aritu zen praktikak egiten eta orain, Gradu Amaierako Lana egiten ari den bitartean, prentsa idatzian lan egitea zer den probatu nahi izan du. Praktikaldi honetan, batez ere, Argiaren webgunea elikatzeaz arduratzen dira bekadunak. Egunerokoak eskaintzen dituen albisteak osatzen dituzte, lantaldeko erredaktoreek beren zuzenketak egin eta aholkuak ematen dizkiote eta sarean publikatzen dira. Zergatik sartu aukeretan Argia? Leku askotan egin daitezke kazetaritza praktikak. Zergatik aukeratu zenuen Argia? Galdera hori egin diot Ortegari, niri ere kanpotik begiratzea tokatzen zaidan kasuetan sinesgarriagoa egiten baitzait norbaitek bere esperientziatik kontatzea. Hala dio: “Uste dut Argia aukera ona dela praktikaldia bertan egiteko. Euskal kazetaritzako erreferenteetako bat izateaz gain, hurbileko tratua dago lankideen artean”. Lasarte-Orian dagoen taldea ez da handia, baina taldea da. Ekipoa. Eta kazetaritzako praktikak egiteaz gain, alegia, artikulua, erreportajeak edo elkarrizketak idazteaz gain, ikasten da taldean lan egiten. Ezagutzen da benetan ekipo batek nola funtzionatzen duen. Astekari bat sortu eta eskuetan izateraino ze kate dagoen eta katean lan egitea zer den. Maketazioa, diseinua, inprenta, publizitatea eta hil bukaeran soldatak ordaindu ahal izatea.

Ortegak dio berak “lotsa galtzen ikasi” duela. Nola idatziko zuen, zer esango zioten erredaktoreek, zuzentzaileek, horiek zituen hasieran zalantzak. Baina “geroz eta erosoago” sentitzen dela aitortu digu. Horretarako dira praktikak. Bakoitzak bere lotsei eta beldurrei aurre egiteko aukerak, eta aukera aprobetxatuz gero, asko ikasiz lan-mundua ezagutzeko eta heltzeko lekuak.

PRODUCCIÓN DE TEXTOS ORALES (MONÓLOGO)

EDERTASUNAri buruz arituko zara. Zer da edertasuna zure ustez? Gaur egungo edertasun kanonek pertsonengan duten eraginari buruz arituko zara eta zure iritziak arrazoitu egingo dituzu.

COPRODUCCIÓN DE TEXTOS ORALES (DIÁLOGO)

a.- HEZKUNTZAAri buruz arituko zarete. Eskolak gizarte-desberdintasuna errepikatzen du dirudun eta txiroentzako ikastegiak daude eta. Hori dela eta, hezkuntzak ez du igoera soziala bermatzen. Gehienetan txiroek txiroak izaten jarraitzen dute eta aberatsak gero eta aberatsagoak dira. Argudiatu zure iritzia,

b.- HEZKUNTZAAri buruz arituko zarete. Zuk hezkuntzaren garrantzia defendatzen duzu, zure ustez igoera soziala bermatzen baitu. Txiroek txirotasunetik irteteko duten aukera bakarra ikastea da. Behar-beharrezkoa da txiroek ere aberatsen aukera berberak izatea ikasi ahal izateko. Argudiatu zure iritzia.